



BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure bezeroekin tratua eroso eta konfiantzazkoa izatea nahi dugu, gure helburu garrantzitsuenetako bat bezeroak produktuarekiko bere iritziak, arazoak... adieraztea da.

Bezeroekin sortu nahi dugun harreman mota hurrengoa da: laguntza pertsonala, hau da, enpresaren eta bezeroen arteko elkarreraginean oinarritzen den harreman mota. Bezeroa, enpresaren ordezkari batekin komunikatu daiteke zuzenean erosketa egiterakoan, edo erosketa egin ondoren.

Zalantzak izanez gero, gure web gunean gurekin komunikatu ahal izateko gure gmail-a, sare sozialak eta telefonoa eskuragarri izango dute.

Horrekin batera, web gunean zalantzak argitzeko, gehien egin diren galderak erantzuteko eta iritzia emateko atal bat egongo da, foru bat bezala. Bertan bezeroek produktuen argazkiak igo ditzazkete. Beraz, online-en erosteko garaian sortu daitezken galderak, zalantzak edo ea seguru den bertan erostea a la ez, web-aren atal horretan egongo dira azalduak.

Aipatzekoa da balorazioa izarretan ere adierazi ahal daitekela. Instagram-en inkestak egingo ditugu APP-an zer gustatzen zaien jakiteko, etab. Bertan, #YUMA hashtag-a erabili beharko dute gure instagrameko kontuan agertzeko. Eta argazkirik hoberenak gure historia nabarmenetan igoko ditugu. Hilean gutxi gorabehera, zozketa bat egingo dugu geure bezero horiei produktua dohainik lortzeko.

Arazo bat badaukate gure produktua akats batekin atera delako, ez dute arazorik izango itzultzeko. Itzultze prozesu osoa pausoka azalduta egongo da gure web orrian. www.yuma.com

